

Galtzen eta ahazten ditugun gauzak

Egunero-egunero gauza asko ahazten ditugu autobusean, liburutegian, lantokian... eta askotan ez dakigu non utzi ditugun. Ondorioz, mota guztietako gauzak pilatzen dira objektu galduen bulegoetan.



Askotan gertatzen omen da pilatuta geratzen diren objektu horiek inork ez erreklamatzeko. Hori gertatzen da, adibidez, udaltzaingoan uzten diren hainbat objektuekin. Eta balio handiko objektua bada zer egiten da?

JOSE LUIS PADRON.- Autobusetan, tabernetan, edozein lekutan, batez ere festetan, jendea ez da konturatzen bidean zenbait gauza utzita joaten dela: aterkiak, arropak, betaurrekoak... Objektu horiek dira maiz ahazten direnak, baina objektu garestiagoak eta bitxiagoak ere galtzen dira: sakelako telefonoak, bitxiak eta hortzordeak (dentadura postiza).

Aurkitzen diren gaiak objektu galduen bulegoetan aurkitzen dira. Galtzen diren objektuak berreskuratzeko, zenbait informazio eman behar dituzte jabeek: noiz galdu duten, non, objektuaren deskribapen zehatza egin behar dute...

Bi urtean objektuaren jabea agertzen ez bada, eta objektua baliozkoa bada, aurkitu duen pertsonak aukera izango du hartzeko. Gauza bera egiten da balio txikiagoa duten gauzekin: arropa, aterkiak eta abar. Baina bi hilabeteko berreskuratze-epetarekin. Sakelako telefonoak zuzenean birziklaturako eramaten dira bi hilabete pasatuta. Dbus-eko bulegoetan gaude, bezeroentzako arretarako sailean. "Hona iristen dira galdutako gauza guztiak. Sailkatu egiten ditugu eta udaltzainek eramaten dituzte. Betiko gauza berberak galtzen dira. Neguan batez ere, euria egiten duenean, aterki asko aurkitzen ditugu, beroki asko, karterak, sakelakoak..."

Goizetan bulegora iristen naiz eta segurtasun-arduradunak galdu diren gauzez betetako kaxa ekartzen dit. Balio handiko gauzak sartzeko kutxa bat ere badaukagu. Ondoren nire mahaian sailkatzen ditut eta objektu bakoitzaren deskribazioa egiten dugu"

Zuk utzi duzu inoiz balio handiko gauzarik ahaztuta?